

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**353/2016 Foru Agindua, azaroaren 21koa, deialdia eta oinarri espezifikoak, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario gisa (administrazio bereziko eskala, azpieskala teknikoa, goi-mailako teknikarien klasea, arkitektoa) sartzeko hautaketa prozesua arautu behar dutenak**

Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 3ko 499/2016 Erabakiaren bidez onartu zen Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko 2016rako enplegu eskaintza, zeinetan jasota baitaude dagozkien hautaketa prozesuen bidez hornitu beharko diren plazak.

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuaren azaroaren 18ko 337/2016 Foru Aginduaren bidez oinarri orokorrak onartu ziren, aipatu den enplegu publikoaren eskaintza horren ondorioz Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrearen zerbitzura karrerako funtzionario gisa sartzeko hautaketa prozesuak arautuko dituztenak.

Hautaketa prozesu bakoitza gauzatzeko, beharrezkoa da eskala, azpieskala eta klase bakoitzeko plazen deialdia arautu behar duten oinarri espezifikoak argitaratzea, eta horietan plaza bakoitzaren ezaugarri bereziak zehaztu beharko dira.

Diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuaren bidez Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu ziren. Beste alde batetik, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuaren bidez funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu ziren. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorritz,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengo artikulua. Oinarri hauen gai diren hautaprobetarako deia egitea.

Bigarren artikulua. Onartzea I. eranskin moduan jasotzen diren oinarri espezifikoak, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario gisa (administrazio bereziko eskala, azpieskala teknikoa, goi-mailako teknikarien klasea, arkitektoa) sartzeko hautaketa prozesua arautu behar dutenak.

Hirugarren artikulua. II. eranskin moduan jasotzen den gai zerrenda onartzea.

Laugarren artikulua. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua hilabeteko epean, ebazpena hartu duen organo berean. Hori guztia, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz –azaroaren 26ko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan ezartzen duenarekin lotuta–.

Gasteiz, 2016ko azaroaren 21a

*Enplegu, Merkataritza eta Turismo, Sustapenaren eta Foru Administrazioaren diputatua*  
**CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR**

**I. ERANSKINA****OINARRI ESPEZIFIKOAK****ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA, AZPIESKALATEKNIKOA, GOI-MAILAKOTEKNIKARIEN KLASEA, ARKITEKTOA (kodea: 12616)****1. DEI EGITEN DEN PLAZAK**

Dei egiten da administrazio bereziko eskalako azpieskala teknikoko goi-mailako teknikarien klaseko 4 plaza –arkitektoa, A taldea, A1 (A) azpitaldea– oposizio-lehiaketa bidez hornitzeko, ondoren azaltzen den bezala banaturik:

- 4 plaza sistema irekiko txanda orokorrean, 3. hizkuntza eskakizunarekin, derrigortasun datarik gabe.

**2. BETEKIZUNAK**

Oinarri orokorretan ezartzen direnez gainera, arkitekto titulua edo gradua gehi masterra eduki beharko da, edo horiek jaulkitzeko eskubideak ordainduta eduki. Atzerrian lortutako tituluak izatekotan, horien homologazioa frogatzen duen egiaztagiria eduki beharko da.

Halaber, dei egindako 4 plazetako 3 betetzeko, horrez gainera, beharrezkoa izango da B gidabaimena edukitzea.

**3. HAUTAKETA PROZESUA****3.1. Oposizio aldia**

Aldi honetan, bi ariketa egin beharko dira, nahitaezkoak eta baztertze indarrekoak.

**3.1.1. Lehenengo ariketa:**

Ariketa honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa hamar (10) puntu da. Horren barruan nahitaezko bi proba egin beharko dira:

– Lehenengo proba:

Idatziz erantzun beharko zaio, epaimahaiak erabakitzen duen gehieneko denboran, oinarri hauetako gai zerrendaren zati komuneko edukien inguruko galdetegi bati. Aukeratzeko launa erantzun dituzten galderek osatuko dute galdetegia.

– Bigarren proba:

Idatziz erantzun beharko zaio, epaimahaiak erabakitzen duen gehieneko denboran, oinarri hauetako gai zerrendaren zati espezifikoko edukien inguruko galdetegi bati. Aukeratzeko launa erantzun dituzten galderek osatuko dute galdetegia.

Lehenengo probara aurkeztu ez direnak ezin izango dira inola ere bigarren probara aurkeztu.

Zuzeneko puntuazioa ondoko formula honen emaitza izango da: puntuazioa erantzun zuzenen kopurua ken erantzun okerren herena da ( $P = Z - O/3$ ). Kontu horretarako, erantzun gabeko galderei ez zaie oker iritziko.

Epaimahaiak erabakiko du, izangaiak nortzuk diren jakin baino lehenago, gutxieneko bost (5) puntuko azken puntuazioa lortzeko beharrezkoa den ezagutza maila.

Kanporatuta geratuko dira bi probetan lortutako puntuazioak baturik bost (5) puntutara heltzen ez diren izangaiak.

Epaimahaiak gutxieneko bost (5) puntuko azkeneko puntuazioa lortzeko beharrezkoa den ezagutza maila ezarri eta gero, zuzeneko puntuazioak azken puntuazio bihurtuko dira, proportziozko banaketa baten arabera, halako moduan non hamar (10) puntuko azken puntuazioa bat datorren gehienez ere lor daitekeen zuzeneko puntuazioarekin. Eragiketa hauek guztiak izangaiak nortzuk diren jakin gabe egingo dira.

### 3.1.2. Bigarren ariketa

Epaimahaiak planteatutako kasu praktiko edo teoriko-praktiko bat edo gehiago egin beharko dira, honekin batera doan gai zerrendaren zati espezifikoarekin lotuak, hark erabakitzen duen gehieneko denboran.

Ariketa hau egitean izangaiek bakar-bakarrik erabili ahal izango dituzte epaimahaiak, ariketaren izaera eta edukia kontuan harturik, erabakitzen dituen kodeak eta antzekoak edo bestelako material teknikoak.

Bigarren ariketa zero (0) puntutik hamasei (16) puntura kalifikatuko da, eta zortzi (8) puntuko kalifikaziora heltzen ez direnak kanporatuta geratuko dira.

Ariketa hau kalifikatzeko, kontuan hartuko dira erantzunen zehaztasuna, sintesirako eta analisirako gaitasuna, garatutako ideien aberastasuna eta horien azalpenaren argitasuna eta zuzentasuna.

### 3.2. Euskara proba

Euskara proban, hizkuntza horren ezagutza ebaluatuko da izangaiek hautatzen duen 1., 2., 3. edo 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko proba ginez.

Dauden lau hizkuntza eskakizunetakoren bat egiaztatuta daukatenek edo balio bereko titulu edo ziurtagirietako bat daukatenek euskara ariketak egiteko eguna baino lehenago aurkeztu beharko dituzte titulu edo ziurtagiri horiek egiaztatzen dituzten agiriak, helbide honetan:

Euskara Zerbitzua - Funtzio Publikoko Zuzendaritza - Arabako Foru Aldundiaren Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saila. Probintzia plaza, 14-5.a 01001. Gasteiz.

Hizkuntza eskakizunetakoren bat egiaztatzea hautaketa prozesuaren gainerakoan lor daitekeen gehieneko puntuazioaren gainean baloratuko da, ondoko era honetan:

- 1. HZ: 1,63 puntu
- 2. HZ: 2,03 puntu
- 3. HZ: 3,58 puntu
- 4. HZ: 3,98 puntu

### 3.3. Lehiaketa aldia

Lehiaketa aldian, izangaiek alegatu eta egiaztatu dituzten merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Haietako bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera dagozkion puntuak esleituz egingo da.

#### 3.3.1. Esperientzia

Herri administrazioetat jotzen diren erakunde eta organismoetako lan esperientzia baloratuko da, gehienez ere sei (6) puntutaraino, 0,05 punturekin edozein herri administrazioetan A1 (A) azpitaldeko lanpostu edo eginkizunetan lan egindako hilabete oso bakoitzeko, baldin eta horretan jarduteko beharrezkoa bazen arkitekto titulua edo gradua gehi masterra edukitzea, eta edozein lotura juridikoren pean, salbu eta zerbitzuen errentamendu kontratu zibil edo merkataritzakoen, beken eta prestakuntza praktiken bitartez emandako zerbitzuak.

Ondorio horietarako, herri administrazioetat abenduaren 26ko 70/1978 Legeak barnean hartzen dituenak jotzen dira, berekin dakartenak herri administrazioako aurretiazko zerbitzuen aitortpena, merkataritza sozietate publikoak eta fundazioak kanpo daudelarik.

### 3.3.2. Informatika ezagutza

Gehienez ere 0,50 puntutaraino IT Txartelaren ziurtatze sistemaren bitartez informatikaren ezagutza mailak egiaztatzeagatik, ondoko baremo honen arabera:

PROGRAMA	PUNTUAK
Windows 7	0,10
Microsoft Word 2010 aurreratua	0,10
Microsoft Word 2000 aurreratua	0,10
Microsoft Word XP aurreratua	0,10
Microsoft Word 2003 aurreratua	0,10
Microsoft Word 2007 aurreratua	0,10
Microsoft Power Point XP	0,10
Microsoft Power Point 2003	0,10
Microsoft Power Point 2007	0,10
Microsoft Power Point 2010	0,10
Microsoft Excel XP aurreratua	0,10
Microsoft Excel 2000 aurreratua	0,10
Microsoft Excel 2003 aurreratua	0,10
Microsoft Excel 2007 aurreratua	0,10
Microsoft Excel 2010 aurreratua	0,10
Microsoft Access XP aurreratua	0,10
Microsoft Access 2000 aurreratua	0,10
Microsoft Access 2003 aurreratua	0,10
Microsoft Access 2010	0,10
Microsoft Outlook 2003 (gaztelaniaz)	0,10
Microsoft Outlook 2003 (euskaraz)	0,10
Microsoft Outlook XP	0,10
Microsoft Outlook 2010	0,10
Internet aurreratua	0,10
Office XP	0,10

Aplikazio baten bertsio jakin baten ziurtapenak baliogabetu egingo ditu bertsio zaharra-goenak.

Arabako Foru Aldundiak erakunde jaulkitzaileari ofizioz eskatuko dio izangaiek lortu dituzten egiaztapenak ziurtatzeko, oinarri orokorretan ezarritako epearen barruan.

### 3.4. Praktika eta prestakuntza aldia

6 hilabete iraungo duen praktika eta prestakuntza aldi bat egingo da, oinarri orokorretan ezarritakoarekin bat etorriz.

## II. ERANSKINA

### GAI ZERRENDA

#### 1. GAI KOMUNAK

1. gaia. Espainiako Konstituzioa (I). Oinarrizko eskubide eta eginbeharrak (10-55 artikulua).
2. gaia. Espainiako Konstituzioa (II). Estatuaren lurralde antolamendua (137-158 artikulua).

3. gaia. Europar Batasuna. Erakunde eta organismo nagusiak, haien osaera eta eskumenak: Kontseilua, Batzordea, Parlamentua, Justizia Auzitegia, Europako Kontu Auzitegia, Eskualdeen Batzordea, Europako Inbertsio Bankua.

4. gaia. Euskal Herriko Autonomia Estatutua (I). Atariko titulua (1-9 artikulua). I. titulua: Euskal Herriaren eskumenak (10-12 artikulua). II. titulua: Euskal Herriko aginteak (24-39 artikulua).

5. gaia. Euskal Herriko Autonomia Estatutua (II). III. titulua: ogasuna eta ondarea (40-45 artikulua).

6. gaia. Arabako Batzar Nagusiak eta Arabako Lurralde Historikoko Foru Administrazioa (I). 1983ko martxoaren 7ko Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko antolamenduari buruzkoa (1-14 artikulua).

7. gaia. Arabako Batzar Nagusiak eta Arabako Lurralde Historikoko Foru Administrazioa (II). 1983ko martxoaren 7ko Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko antolamenduari buruzkoa (15-33 artikulua).

8. gaia. Arabako Batzar Nagusiak eta Arabako Lurralde Historikoko Foru Administrazioa (III). 52/1992 Foru Araua, abenduaren 18koa, Arabako Foru Aldundiaren antolamendu, funtzionamendu eta araubide juridikoarena (3, 4, 17, 18, 38 eta 39 artikulua). 4/2000 Foru Araua, otsailaren 21ekoa, Arabako Foru Aldundiko, bere erakunde autonomoetako eta foru sozietate publikoetako goi kargudunen araubidea arautzen duena (1-6 artikulua).

9. gaia. Enplegu Publikoa (I). 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, onartzen duena enplegatu publikoaren oinarritzko estatutuaren legearen testu bateratua. Langile motak (8-13 artikulua). Enplegatu publikoen eskubideak (14-20 artikulua). Enplegatu publikoen egin-beharrak. Jokaera kodea (52-54 artikulua).

10. gaia. Enplegu Publikoa (II). 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, onartzen duena enplegatu publikoaren oinarritzko estatutuaren legearen testu bateratua. Zerbitzu harremana eskuratzea eta galtzea (55-68 artikulua).

11. gaia. Enplegu Publikoa (III). 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, onartzen duena enplegatu publikoaren oinarritzko estatutuaren legearen testu bateratua. Administrazio egoerak (85-92 artikulua). 6/1989 Legea, euskal funtzio publikoarena. Hizkuntza normalizazioa (97-99 artikulua).

12. gaia. Administrazioa Prozedura (I). 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearenarena. Jarduera arau orokorrak (13-28 artikulua). Epe mugak eta epeak (29-33 artikulua). Egintzen eraginkortasuna (37-42 artikulua).

13. gaia. Administrazioa Prozedura (II). 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearenarena. Administrazio prozeduran interesdun denaren eskubideak (53. artikulua). Prozeduraren antolamendua (70-74 artikulua). Ebazpena (87-92 artikulua).

14. gaia. Sektore Publikoko Kontratuak (I). 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, onartzen duena sektore publikoko kontratuen legearen testu bateratua. Xedea eta aplikazio eremua (1-4 artikulua). Kontratu motak (5-11 artikulua). Administrazio kontratuak eta kontratu pribatuak (18-21 artikulua).

15. gaia. Sektore Publikoko Kontratuak (II). 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, onartzen duena sektore publikoko kontratuen legearen testu bateratua. Itunak egiteko askatasuna eta kontratuaren gutxienezko edukia (25-26 artikulua). Baliogabetasun araubidea (31-36 artikulua).

16. gaia. Datuen Babesa. 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 12koa, datu pertsonalen babesarena. Xedapen orokorrak (1-3 artikulua). Datuak babesteari buruzko printzipioak (4-12 artikulua). Pertsonen eskubideak (13-19 artikulua).

17. gaia. Gardentasuna. 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunaren, informazio publikoa eskuratzearen eta gobernu onarena. Aplikazio eremu subjektiboa (2-4 artikulua). Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea (12-16 artikulua). Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea gauzatzea (17-22 artikulua).

18. gaia. Berdintasun Politikak. Printzipio orokorrak eta babesak. Politika publikoak: printzipio orokorrak (3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa: 3-22 artikulua). EAEko herri administrazioen esparruko neurriak (Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoa: 18-22 artikulua).

## 2. GAI ESPEZIFIKOAK

### Eraikuntza:

19. gaia. 38/1999 Legea, 1999ko azaroaren 5koa, eraikuntzaren antolamenduarena: aplikazio eremua. Eraikuntzaren betekizunak. Proiektua. Gauzatutako obraren harrera eta dokumentazioa.

20. gaia. 38/1999 Legea, azaroaren 5koa, eraikuntzaren antolamenduarena. Proiektugilearen betebeharrak. Obra zuzendariaren eta obra gauzatzeko zuzendariaren eginkizunak. Eskrituran agerrarazteko eta erroldatzeko betekizunak.

21. gaia. Gutxieneko iristerratasun baldintzak. 20/1997 Legea, abenduaren 4koa, iristerratasuna sustatzeko, eta garatzen duten arau teknikoak. 68/2000 Dekretua.

22. gaia. BOEak diseinatzeko arauak. 2009ko otsailaren 12ko Agindua, babes ofizialeko etxebizitzak diseinatzeko ordenantzei buruzkoa. Babes ofizialeko etxebizitzaren araubidea. Etxebizitza eta lurzoruaren arloko finantza neurriak.

23. gaia. Eraikuntzaren kode teknikoak. Xedapen orokorrak. Oinarrizko eskakizunak.

24. gaia. Eraikuntzaren kode teknikoak. Teknika eta administrazio baldintzak. Obra eta eraikuntza proiektuaren eta gauzatzearen baldintza orokorrak. Oinarrizko eskakizunak.

25. gaia. Eraikuntzaren kode teknikoak. Berrikuntza garrantzitsuenak aurreko araudiarekiko. Arlo hauetako berrikuntzak: egiturazko segurtasuna, sute kasuetako segurtasuna, zarataren aurkako babesak eta energia aurreztea.

26. gaia. Eraikuntzaren kode teknikoak (EKT). DB, SE-AE. Eraikuntzako jardunak.

27. gaia. Eraikuntzaren barruko telekomunikazio azpiegitura komunak. Eremu erreserbatuak eta hoditeriak diseinatzeko arauak.

28. gaia. Eraikuntzaren kalitatearen kontrola. CE marka. Kalitate markak. Egokitasun teknikoaren agiria. Eraikuntzaren kalitatea kontrolatzeko saiakuntza laborategien egiaztapena.

29. gaia. Gutxieneko osasun eta segurtasun baldintzak eraikuntza obretan.

30. gaia. Mantentzea eta berregokitzea. Oinarrizko kontzeptuak. Ondare urbanizatua eta eraikia berregokitzeako jardun babestuak.

31. gaia. 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, sektore publikoko kontratuen legearen testu bateratua onartzen duena (I): xedapen orokorrak. Sektore publikoaren kontratazioari buruzko xedapen orokorrak.

32. gaia. 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, sektore publikoko kontratuen legearen testu bateratua onartzen duena (II): kontratugileak. Kontratuaren xedea, prezioa eta zenbatekoa.

33. gaia. 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, sektore publikoko kontratuen legearen testu bateratua onartzen duena (III): sektore publikoko kontratazioetan eska daitezkeen bermeak. Kontratuak aldatzea.

34. gaia. 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, sektore publikoko kontratuen legearen testu bateratua onartzen duena (IV): administrazio publikoen kontratuak prestatzea. Beste kontratu batzuk prestatzea.

35. gaia. 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, sektore publikoko kontratuen legearen testu bateratua onartzen duena (V): kontratuak esleitzea. Kontratazioaren arrazionalizazio teknikoak.

36. gaia. 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, sektore publikoko kontratuen legearen testu bateratua onartzen duena (VI): administrazio kontratuen ondorioak, haiek betetzea eta azkentzea.

37. gaia. 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, sektore publikoko kontratuen legearen testu bateratua onartzen duena (VII): arau orokorrak. Arau bereziak obra kontratu, obra publikoaren emakida, zerbitzu publikoen kudeaketa, hornikuntza eta zerbitzuetarako, eta sektore publikoaren eta sektore pribatuaren arteko lankidetzarako.

38. gaia. 2014/24/EB Zuzentaraua, kontratazio publikoari buruzkoa (I). Aplikazio eremua, definizioak eta printzipio orokorrak.

39. gaia. 2014/24/EB Zuzentaraua, kontratazio publikoari buruzkoa (II). Prozedurak. Kontratazio publiko elektronikoa eta agregaturako teknikak eta tresnak. Prozeduraren garapena. Kontratua gauzatzea.

Proiektuen eta obren jarraipena:

40. gaia. Eraikuntza eta urbanizazio proiektu teknikoak. Aurretiazko azterketak. Aurreproiektuak. Oinarrizko proiektua. Gauzatze proiektua: memoria, planoak, baldintzen agiria, aurrekontua. Proiektuak ekonomia aldetik arrazionalizatzea.

41. gaia. Obraren zuzendaritza. Obra aginduak, grafikoak eta idatziak. Obraren ziurtapena. Obraren likidazioa eta harrera. Obra harreraren aktak.

42. gaia. Mota guztietako proiektuen gainbegiratzea. Txostenak ematea. Aholkularitza. Obren gauzatzearen jarraipena. Obren proiektua eta egutegia betetzea. Obrak proiektu teknikora egokitzea.

Iraunkortasuna:

43. gaia. Lurralde iraunkortasuna. Iraunkortasun irizpideak hirigintza antolamenduaren barruan jasotzea.

44. gaia. Planeamendu iraunkorragorako helburuak, irizpideak eta adierazleak. Lurzoru kontsumoa. Mugikortasuna, hondakinak, hiri berrikuntza hirigintzako abiapuntu gisa.

45. gaia. Datu espazialen azpiegitura. Lurralde informazioaren kudeaketa eta eragileen arteko elkarreragintasuna. Inspire zuzentaraua.

46. gaia. Geografia informazioko sistemak. Definizioa. Geografia datuak. Geografia datuen irudikatze digitala. Geografia informazioko sistema bektorizatuak. Geografia informazioko Raster sistemak. Lurraren eredu digitalak.

Hirigintza planeamendua eta kudeaketa:

47. gaia. 2/2008 Legegintzako Errege Dekretua, ekainaren 20koa, lurzoruaren legearen testu bateratua onartzen duena. Jabetza eskubidearen edukia: ahalmenak, eginbeharrak eta kargak.

48. gaia. EAEko 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoru eta hirigintzarena. Sailkapena eta kalifikazioa.

49. gaia. 4/1990 Legea, Euskal Herriko lurralde antolakuntzarena. Printzipio gidariak. Legeak lurralde antolakuntzarako taxututako tresnak. Lurralde antolakuntzarako gidalerroak, lurralde plan partzialak, arloko lurralde planak. Horietako bakoitzaren oinarrizko ezaugarriak: funtzioak, zehaztapenak, dokumentazioa.



50. gaia. Lurralde antolakuntzarako tresnen eraketa eta bideraketa. Administrazio koordinazioa: Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzako Batzordea. Batzordearen txostenaren ezaugarriak.

51. gaia. Hirigintza planeamendua. Planen hierarkia. Plan motak.

52. gaia. Udalerrietako hirigintza planeamendua. Plan orokorra. Xedea eta edukia.

53. gaia. Garapeneko planeamendua. Planen tipologia: haietako bakoitzaren xedea eta edukia.

54. gaia. Udallerri mailako hirigintza planen eraketa EAEn. Planak onartzeko prozedura. Administrazio ezberdinen esku-hartzea. Epeak. Baimenak etetea.

55. gaia. Hiri birgaitzea, berroneratzea eta berritzea. 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, lurzoruaren eta hiri birgaitzearen legearen testu bateratua onartzen duena.

56. gaia. Egiturazko antolamendua eta antolamendu xehatua. Lurzoruaren sailkapenagatik diren mugak eta eginbeharrak: lagapenak eta urbanizazio obraren kostuak ordaintzea.

57. gaia. Hirigintza planeamenduaren administrazio erregistroa. Hirigintza intereseko elkar-teen administrazio erregistroa.

58. gaia. Hiri lurzoruaren araubidea plan orokorrean. Zehaztapen orokorrak. Planeamendu areako baldintza bereziak.

59. gaia. Lurzoru urbanizagarriaren araubidea plan orokorrean. Kategoría ezberdinen baldintza bereziak.

60. gaia. Antolamendu planen gauzatzea: eskumena eta printzipio orokorrak. Eraikigarritasun motak. Gainbalioen afektazioko eta onurak eta kargak zuzentasunez banatzeko printzipioak. Jarduketa sistemak: zein den aplikagarria zehaztea.

61. gaia. Urbanizatzeko jarduketa programak. Edukia. Dokumentazioa. Izapideak.

62. gaia. Planen ekonomia iraunkortasunari buruzko memoria. Edukia, xedea eta aplikagarritasuna.

63. gaia. Horniduretarako lursailak lortzea. Lortzeko erak, lurzoru motaren arabera. Desjabetzea. Zuzeneko okupazioa. Aldi baterako okupazioaren kalte ordaina. Hornidura publikoak nahitaez eta doan laga beharra.

64. gaia. Hirigintzako estandarren kontzeptua. Hiri lurzorian eta lurzoru urbanizagarrian eska daitezkeen gutxienekoak.

65. gaia. Paisaiaren babesa, kudeaketa eta antolamendua EAeko lurraldearen antolamenduan. Paisaiari buruzko Europako hitzarmena.

66. gaia. Euskal kultura ondarea. Legeria: 7/1990 Legea, uztailaren 3koa, euskal kultura ondarearena. 306/1998 Dekretua, azaroaren 10ekoa, kalifikatutako eta zerrendatutako kultura ondasunen auri-egoeraren deklarazioari buruzkoa eta berauek eraisteko erabakiaren aurretik eta ondoren egin beharrekoak buruzkoa.

Hirigintza diziplina:

67. gaia. Eraikitze baimena. Kontzeptua. Izaera, helmena eta ezaugarriak. Beste administrazio baimen batzuekin batera gertatzea, eta bereziki jarduera gogaikarri, kaltegarri, osasungaitz eta arriskutsuen arautegian sailkatutako jarduerak burutzeko baimenekin.

68. gaia. Baimena emateko prozedura. Hirigintzako kontsulta prestatze ekintza gisa, eta baimenarekin duen lotura. Proiektu teknikoa eta elkargoaren ikus-onespena. Baimena espresuki ematea. Isilbidez ematea. Herri administrazioek sustatutako ekintzak.

69. gaia. Aurria. Kontzeptua eta motak. Hirigintza legezkotasunaren babesa. Gauzatzeko aginduak. Zaintzeko eginbeharra.



70. gaia. Hirigintzako arau hausteak. Arau hausteen motak. Administrazio zehapenak. Foru aldundietako hirigintza ikuskatzeko zerbitzua.

71. gaia. Irekiera edo jarduera baimenak. Baimenak behar dituzten jarduerak. Irekiera baimena behar ez duten jarduerak. Irekiera baimenak ematea. Irekiera baimenen eskualdatzea. Haiek ukatzea eta azkentzea.

Hirigintza. Arloko legeria:

72. gaia. Hirigintza eta arloko legeria: 1) Errepideak, 2) Burdinbideak, 3) Urak, 4) Abelbideak.

73. gaia. Ingurumen ebaluazio estrategikoa plan eta programetan. Estatuaren legea eta EAEko dekretua. 21/2013 Legea, ingurumen ebaluazio estrategikoarena. EAEko 211/2102 Dekretua, EAEn ingurumen ebaluazioa egiteari buruzkoa.

74. gaia. Zarata mapak eta zonifikazio akustikoa planetan. 37/2003 Legea, zaratarena. 213/2012 Dekretua, EAEko kutsadura akustikoari buruzkoa.

Balorazioak:

75. gaia. Hirigintzako balorazioak. Lurzoruaren oinarritzko egoerak. Lurzoru urbanizatua eta landa lurzorua. 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, lurzorua eta hiri birgaitzearen legearen testu bateratua onartzen duenak, ezarritako balorazio araubidea.

76. gaia. Ondasun higiezinak baloratzeko irizpideak. Eraikuntzen balioa. 1492/2011 Errege Dekretua, urriaren 24koa, lurzorua legearen balorazio arautegia onartzen duena.

77. gaia. Nahitaezko desjabetzea, desjabetzeko ahala eta prozedura arrunta. Balio justua. Itzultzea.

78. gaia. Katastro balorazioa. Balioen txostenak. Ondasun higiezinaren gaineko zerga. 51/2014 Foru Dekretua, onartzen dituena lurzorua eta eraikinak baloratzeko arau teknikoak eta haien balioen esparru taula, hiriko ondasun higiezinaren katastro balioa zehazteko.

79. gaia. Urbanizazioan parte hartzeko ahalmenaren kalte ordaina, eta urbanizatzeko edo eraikitzeko jardunen ekimen eta sustapenarena.

80. gaia. Lurzoruaz bestelako ondasun eta eskubideak baloratzea: sail landatuak, soroak, obrak, instalazioak, eraikuntzak, maizterrentzako kalte ordainak, administrazio emakidak.

81. gaia. Birgaitzeko esku-hartzeak. Eraikuntza unitateen hirigintza egokitasuna. 308/2000 Dekretua, birgaitzeko jardun babestuei buruzkoa. Urbanizatzeko esku-hartzeak.

82. gaia. Birgaitze integratuko arearen adierazpena. Birgaitzeko esku-hartzeak: zaharberrikuntza zientifikoa, zaintze zaharberrikuntza, zaintzea eta apainketa, sendotzea, berreraikitzea, eraberrikuntza, etab.

83. gaia. EAEko 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, etxebizitzarena.

Arabako erakunde antolaketa eta toki administrazioa, eta horren gaineko araudia:

84. gaia. Obra eta Zerbitzuen Foru Plana: arloko eta lurraldeko helburuak. Babestu daitezkeen obra eta zerbitzuak, eta obra mota bakoitzari aplikatzeko zaion dirulaguntzaren zenbatekoa zehaztea. Laguntzak izapidetzeko, aukeratzeko eta itzultzeko prozedura arauak.

85. gaia. Obra txikiak gauzatzeko laguntza programa: erakunde onuradunak. Laguntza motak eta kanpoan utzi daitezkeen jardunak. Laguntzen zenbatekoa ezartzea. Prozedura: deialdia, emakida araubidea eta aukeratzeko irizpideak, ebazpena eta jakinarazpena. Dirulaguntza ezartzea eta ordaintzea, erakunde onuradunen eginbeharrak eta erantzukizunak.

86. gaia. Auzo harremanak sustatzeko ekimenetarako laguntzen programa: erakunde onuradunak. Laguntza motak eta kanpoan utzi daitezkeen jardunak. Laguntzen zenbatekoa ezartzea. Prozedura: deialdia, emakida araubidea eta aukeratzeko irizpideak, ebazpena eta jakinarazpena. Dirulaguntza ezartzea eta ordaintzea, erakunde onuradunen eginbeharrak eta erantzukizunak.

87. gaia. 48/2016 Foru Dekretua, uztailaren 5koa, onartzen dituen Obra eta Zerbitzuen Foru Planari buruzko foru arauaren 13. artikuluko 5. paragrafoan (19/2012 Foru Araua, azaroaren 12koa) aurreikusita dauden dirulaguntza osagarrien baldintzak eta arauketa.

88. gaia. Aldundiak obra eta zerbitzuetan laguntzeko dituen beste tresna batzuk: Arabako toki erakundeak finantzatzeko foru lerroa. Definizioa, helburua, zenbatekoaren zehaztapena. Prozedura: eskaera, aurkeztu beharreko agiriak, betekizun bereziak, emakida eta irizpideak, funtsen erabilgarritasuna, kontratua formalizatzea, funtsen amortizazioa eta ez-betetzea.

89. gaia. 11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzena (I). Aplikazio eremua. Dirulaguntza publikoei buruzko xedapen erkideak. Emateko prozedurak. Lehiatze araubidea. Zuzenean ematea.

90. gaia. 11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzena (II). Dirulaguntza publikoaren kudeaketa eta justifikazioa. Aurrekontu kudeaketako prozedura. Dirulaguntzak itzultzea. Dirulaguntzen finantza kontrola. Arau haustek eta zehapenak.